

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com


*Arantxa Barriola Etxeberria*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1939)*

Aurkibidea



## Biografia



Donostiarra, Garibai kalean jaio zen. Hangoak ziren barriolatarrak; aitonak zapata denda zuen etxe azpian. Abelino Barriola (1885-1944) zapataria idazle eta antzerkigile ezaguna ere izan zen; baita Donostiako lehen zinegotzi abertzalea ere. Gerra etorri zenean erbestera alde egin behar izan zuen; Pauen hil zen. Arantxaren aita, mediku eta idazlea, preso hartu zuten, eta hiru urte egin zituen heriotza zigorrera kondenatuta. Gogoratzen da Madrilan egon zela amarekin, kartzelara bisitan joateko, baina oso umea zen orduan. Gero Aietera joan ziren bizitzera, "sorginaren etxera", eta hantxe igaro zuen gaztaroa. Hondartzara joaten ziren, txalupan ibili, bizikletan, mendira joan... Mojetan ikasi zuen, San Bartolome kalean, uniformearekin, eta ondoren Frantzian egin zituen beste hiru urte, kolegio batean. Bueltan aitarekin hasi zen lanean. Garibai kalera ezkondu zen, baina urte gutxiren buruan Aietera joan ziren bizitzera. Hantxe bizi da orain ere. Aietekoa sentitzen da.

## Zintak

### DON-019

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-23
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

# Pasarteak

## 1. Garibai kalea nolakoa zen; aitonaren zapata denda

- **Erref:** DON-019/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

<p>Garibai kalean jaioa. Aitak kontsulta zuen han. Kalea nolakoa zen: tranbia, banketxea, Correos, autobus geltokia. Zapata-denda zuten etxe azpian, aitonarena izandakoa. Errege etxeokak hornitzen zituen aitonak, Maria Cristina erregina eta.</p>

## 2. Gerra garaian, etxea konfiskatuta

- **Erref:** DON-019/003
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:02:24. **Bukatu:** 00:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

### Laburpena:

Eraikin osoa zen familiarena, baina gerra garaian kendu egin zieten. Dendaren erdia ere beste batzuk eduki zuten, baimenik gabe.

### Transkripzioa

Bueno aitak konsulta euki zun hor, etxea guria zan, eta zeuden familiya zeon. Gero gerra denboran kendu egin ziguten, eta bizitu zan gure gaiñean kendu zigutenak, ziala Iturrino. Eta orduan denda ere kendua eondu zan eta euki zuten denda batzuk baimenik gabe gure erdiya, denda erdiya, eta azkenian ya konsegitu genun hartzea. Baiño egondu zan urte pillo bat berak euki zutela, beste batzuk euki zutela. Baiña hori gerra denborako kontuak dira.

## 3. Abelino Barriola, aitona kulturazalea

- **Erref:** DON-019/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:03:13. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Aitona Abelino Barriola zen, Donostiako Udaleko zinegotzia zen. Artikutzako ura. Antzerki munduan ibiltzen zen, Toribio Alzagarekin. Osabak jarraitu zuen haren obrak egiten.

**Transkripzioa**

- Eta zure aitona nor zan?

- Nere aitona Abelino Barriola Aizpurua. Zan, bueno, izan zan bere anaiyakin Donostiko udaleko konzejala eta berak zeudenian erosi zan Donostirako ura, Artikutza. Beak zeudenian erosi zan, ta beak parte hartu zuten. Eta nere aitona asko sartua zeon teatro munduan, berak idatzi zitun obra batzuk eta jartzen zuten Toribio Alzagakin ta... Bai, mundu hortan asko sartzen zan. Gero ez dakit orfeoiakin ta baiña zan kultura nahiko. Zapatak iten zitun, baiña aparte bere kultura ta bere... Bai, bere anaiyakin, eta berak idatzi eta gero osabak jarraitu zun, bai, bere obrak eta egiten; baiña bestela gero, besteak ez degu iñork izan holako gauzarik.

**4. Familiaren gorabeherak, gerra dela eta**

- **Erref:** DON-019/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena:**

Gerra garaian ihes egin behar izan zuen aitonak, bi alabarekin. Bi seme elkarren kontra borrokan, derrigortuta. Umetan aitonarengana joaten ziren bisitan, baina ez zen erraza. Bederatzi anai-arreba ziren. Garibai kaletik Aietera joan ziren bizitzera, "sorginaren etxera".

**5. Eskolara mojetara, jaunartzea Arantzazun**

- **Erref:** DON-019/009
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

<p>Eskolara San Bartolome kalera: Compa&ntilde;ia de Maria, mojetara, oinez. Beldurra pasatzen zuten malda igotzen etxerakoan. Faroleroa. Aurretik andere&ntilde;oarekin ikasi zuten, etxean, euskaraz. Jaunartzea Arantzazun egin zuen. Don Diego Lasa apaiza. Arantzazura joateko ohitura: aitak

kartzelan egindako promesa. Anaia marianistetara. Uniformea, kaparekin.</p></div>

## 6. Umetako andereñoak; etxean euskaltzaleak

- **Erref:** DON-019/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:13:06. **Bukatu:** 00:15:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

Umetan izan zituen andereñoak: Andone eta Koro Mujika, etxera joaten ziren. Jaunartzea. Amak, ezkontzeko, hiru hilabete egin zituen baserri batean euskara ikasten. Kanean, berriz, erdaraz. Seme-alabak Santo Tomas lizeora eramán zituzten.

## 7. Aitak unibertsitatearen sorreran parte hartu zuen

- **Erref:** DON-019/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Aita kultur gaietan sartuta egon zen beti, medikua zen arren. Unibertsitatea sortu zuten. Yarza, Santamaria.

### Transkripzioa

Bueno beti eondu da sartua kultur gaietan eta berak sortu zuten unibersidadea, hemengo unibersidadea bai. Aitu zian lau izan zian: don Francisco Yarza, nere aita, eta este, Aguz eta bestea Santamaria. Eta hoyek bai ya jarri zuten hemengo unibersidadia eta hor sartuak eondu zian eskatzen, ta Madrida juten ta etortzen, ta unibersidadea egiteko, bai. Aita medikua zan, baiña oso sartua eondu zan, bai, "padres de familia", San Bartolomengatik, zeatikan denak gu San Bartolomea jun giñan; eta gero hor ya sartu zan kultur gauzetan, eta egin zun hori.

## 8. Umetako jolasak eta gaztetakoak

- **Erref:** DON-019/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

**Laburpena:**

Umetako jolasak: panpinak, kamioia, baloiak. Aieten frontoian ibiltzen ziren. Txorro-morro, lagunekin. Gorde-gordeka. Aieteko etxera lagun asko joaten ziren. Txalupan ibiltzen ziren, mutilak eta neskak txandaka; hondartzan.

**9. Gotzainaren arauak: gonadun bainujantziak hondartzan**

- **Erref:** DON-019/015
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

**Laburpena:**

Gotzainak (Jaime Font) atera zituen arauak: mutilekin ezin ibili, nola jantzi... Eskolan eman zioten papera, eta ez zuen sinatu. Bainujantzia gonarekin; Fielros Moro dendan egiten zituzten, etxean bestela.

**10. Hondartzako kontuak: albornoza, aldagelak**

- **Erref:** DON-019/016
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

**Laburpena:**

Albornoza, gurasoen garaian. Kabinak, hondartzan aldatzea ez zegoelako ondo ikusia. Gabarroiak. Oinez bueltatzen ziren edo aitarekin autoan. Aitari puntualtasuna gustatzen zitzaion bazkalorduan.

**11. Aiete, baserriz betea; festak**

- **Erref:** DON-019/017
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Boxeoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Aiete nolakoa zen lehen. Dena baserriak ziren, mendia. Boxeoa egiten zuten, festetan; ring-a jartzen zuten. Geroago, krosa. Jaietan zer zegoen. Loreak erostera joaten zen, eskolara eramateko. Baratzea bazuten, etxerako. Neskamea.</p>

## 12. Madrilen, aita bisitatzen kartzelan

- **Erref:** DON-019/019
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:25:59. **Bukatu:** 00:28:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Hiru urte egin zituzten Madrilén, aita kartzelan zegoelako. Ama telefonista egon zen. Kartzelara bisitan; ama ezin zen sartu, baina umeak bai, apaizarekin. Liburua idatzi zuen han aitak. Aitona eta aita, biak idazle.

### Transkripzioa

- Ni oso txikiya nintzan, ni gogoratzen naiz, bai, egondu giñala hiru urte nere ama Madrilén, aita kartzelan zeon, eta orduan ama eondu zan hotel batean, lagun batzun hotelean; baiña esan zun bera ezin zala hola egon, ta lanean eondu zan telefonoan, telefonoa hartzen eta. Eta gu bi zaharrenak jun giñan aita ikustera eta eondu giñan ba denbora bat amakin, ta juten giñan kartzelara ikustea. Ta hartu behar zian liburu batzuk Franco ez dakit zer, edo Jose Antonio ikusteko, ba, pasea emateko, ba erosi behar zenitun liburu hoiyek eta ikusten zenun pixkat, baiña guri uzten ziguten apaizakin, fraile bat zala o, nik ez det oso... Baiño oso gutxi gogoratzen naiz, txikia nintzan baiña, sartzen giñan aitangana, baiña amak ezin zun, reja batzuk zeuden, eta horren atzetik...

- Nun zeon, Madrilén aita?

- Madrilén eondu zan, bai, Porlier eta bai... Dena hori desagertu da baiña.

- Eta ikusteko zer zegon kristal baten atzian ala...?

- Ez, sare batzuk bezela, baiña guri uzten ziguten, txikiak, fraileak sartzen zigun; baiña ama ez, amak kanpotik behar zun. Eta bai, hola hiru urte eondu zan. Eta bai, bueno, idatzi du, bere liburua idatzia dago, ta dena handikan ateratzen zun, idazten jun zan liburua, ateratzen zun nere amari ematen zion papel txiki-txiki batzutan idatzia, eta nere ama jun zan gordetzen eta gero horrekin idatzi zun liburua. Zan liburu, bueno liburu batzuk ditu idatziak aitak, eta bat zan gerra denborakoa, bueno, hango denborakoa ta, bai. Bai, horrenak.

- Idazle-sena familiyan?

- Aitona zan eta gero aita. Zeren aitak euskera, aitonak dena teatroa eta dena euskeraz. Eta aitak erderaz eta zerbait euskeraz. Eta gero artikuloak eta hori asko. Aita gehiyo hortan, aitak gehiyo idatzi du.

## 13. Zinema, mendia, dantzaldiak

- **Erref:** DON-019/021
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena:**

Batxilerra egin ondoren, Frantzia egon zen moja ikastetxe batean, eta ondoren aitari laguntzen hasi zen, kontsultan. Astelehenetan zinemara joaten ziren. Miramar, Kursala. Baina gazteagoa zela zinemara ez, mendira. 18 urterekin festa egiteko ohitura, soineko luzez jantzita: dantzaldia etxean. Teniseko festak.

**14. Etxeko musikazaletasuna**

- **Erref:** DON-019/022
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

**Laburpena:**

Bere afizioak zeintzuk ziren: irakurtzea eta musika kontzertuak entzutea. Lau kontzertu hilean, Victoria Eugenia; bazkideak ziren. Aita oso musikazalea zen. Musika klasikoa.

**15. Andoaingo su artifizialak eta Donostiako ospakizunak**

- **Erref:** DON-019/023
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:34:06. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena:**

<p>Andoaingo osabarengana joaten zirenean, idi apustuak eta suzko erruberak. Bertsoak. Su bereziak ziren Andoaingoak, San Juan. Danborrada, kaldereroak. Estropadak Aldapetatik ikusten zituzten; kiniela egiten zuten.</p>

**16. Dendarik ez, tabernak ere gutxi**

- **Erref:** DON-019/025
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:37:16. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, errostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

Aieten dendarik ez zegoen, autobusik ere ez. Baserritarrentzat autobus zerbitzua, saltzera joateko, Hernanitik: egunean bi. Zaldi-karroak. Etxera



esnea eramaten ziena astoan joaten zen. "Villanavarra" janari denda. Tabernak ere gutxi. Erregaliz saltzaileak. Pagarik ez zuten.

## 17. Mendira eta bizikletan lagunekin

- **Erref:** DON-019/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Mendira Oriora joaten ziren, oinez, hondartzara joateko. Oriamendira ere bai, zartaginarekin. Astigarragara bizikletan, gereziak batzera. Etxetik merienda eramaten zuten. Anaia zaharrenarekin. Adin-tarte handia du batzuekin, aita kartzelan egon zelako.

## 18. Hondartzara bainatzera eta jolastera

- **Erref:** DON-019/027
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:46:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

### Laburpena:

<p>Eguzkia hartzeko ohiturarik ez zegoen. Eguraldi txarrarekin ere joaten ziren hondartzara. Beti uretan eta jolasean, bestela txalupan. Aulkietan eserita, etzanda ez. Toldo azpian.</p>

## 19. Lehenengo garbigailuak; irratia

- **Erref:** DON-019/029
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:46:28. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

### Laburpena:

<p>Ezkondu zenean oparitu zioten garbigailua nolakoa zen, Otsein markakoa: ura kendu behar zitzaion arropari. Aurretik, eskuz. Burdinazko lapikoak. Irratia eta diskoak. Telebista. Galena sistema, irratia entzuteko.</p>

## 20. Francoren bisitak; gerran konfiskatutako ondasunak

- **Erref:** DON-019/030
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Telefonoa kendu egiten zieten, Franco Aietera etortzen zenean; urarekin ere murrizketak. Gerra denboran, Aldapetako etxea kendu egin zieten; Garibai kaleko eraikinean ere bizitza bat eta denda. San Bartolomeko mojak aitonaren etxean ezkutatu ziren. Komentua zaintzen.

**21. Etxean pentsakera irekikoak, taburik ez**

- **Erref:** DON-019/032
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:52:57. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Etxean eskolan baino askatasun gehiagorekin hitz egiten zen sexuaz. Irakurgaiak ere libre. Tabuen sentsaziorik ez du. Amak esplikatu zion umeak nondik zetozen.

**Transkripzioa**

- Baiña nere etxean ez da eman horrenbeste... Ez zioten ematen horrenbeste istori eta hitz eiten zan. Nola aita sendagillea zan, ba nik ez dakit o libertade gehiyo zeon o... Etxean, ez, kondoiyak eta gauza hoiyek ez, baiña sexu ez dakit, nik beti esan det. Adibidez, ni juten nintzan ikastolara eta "qué estás leyendo", nere etxean neri utzi naute irakurtzen dena; nik ez det taburik izan "esto no"... Bai! gogoratzen naiz ba "lo que el viento se llevó" edo holako zerbait, nik uste detela gehiyo ez jendeai izutzeko hori irakurtzen nengolako. Baiña bestela nere etxean ez da izan tabu hori. Nik behintzat ez det bizi, beste anayak ez dakit zer esango duten. Baiña nik ez det hori. Eta hitz eiten zan, ez dakit, ez degu izan, ez degu hola "hoi ez zan hitz eiten". Ez, ez da...

- Eta umiak nondik datozen eta hori esplikatu zizun iñork?

- Bai, bai, bai, nik amak, bai, bai, bai, nik hori bai. Eta nik nere semeei ere. Baiña "vamos", hori.

- Paristik ez ziala etortzen.

- Ez, ez, esaten zian tonteri hoiyek baiña berehala... Nik ez det hortan ez det... Eta ez det... Batzuk esaten dute "yo tengo un trauma del cole", nik ez. Egia esan, nik ez det traumarik ez ikastolan eta ez etxean, ez det. Ez, nere ama nahiko irikia zan. Ez da... gero gazteagoak berdin esaten dizute baietz, hori, baiñan nik ez det, nik ez det idea hori behintzat.

- Naturaltasunez...

- Bai, ez da, ez dakit, ez zan, baiña hori... Bakoitzak ere nola bizitzen dun ere kontatzen du e? Baiña ni ere oso trankilla izan naiz ta ez zan hori. Baiña... Ez dakit.

**22. Meza eta arrosarioa, beti**

- **Erref:** DON-019/033
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:56:52

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Aita egunero joaten zen mezetara, hil artean. Beraiek igandero. Arrosarioa errezatzen zuten etxean, afaldu aurretik. Horretan tradizionalak ziren.</p>

### 23. Jostunak eta modako orrazkerak

- **Erref:** DON-019/034
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 01:00:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena:**

Jostuna etxera joaten zen, eta amak bi orduan izaten zuen han, begiratu eta ikas zezan. Ile-apaindegira ez ziren joaten. Plantxak: ile lisoa zegoen modan, eta ahizpei plantxatzen zien berak. "Mesa-camilla"-n sartzen zuten burua, ilea lehortzeko.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-12

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com